

## Antxiñako fotografia

### Betik ondo kuadrillia

**G**aurkuan aspalditxoko mutil-kuadrilla txantxikuar ezagun baten fotografia dakartzuegu. Orain dala 56 urteko argazkixa dozue. Ordurako, gazte honeik euren taldiarendako **Betik ondo** eukain hartuta izentzat. Gerra osteko sasue triste eta illun hareittan etzan gutxi tabernak, dendak, taldiak edota alkartiak euskeraz izentaitia. Dana dala, etzan kasu bakarra Oñatin: esate baterako, urte horreittan **Irrintzi** kuadrillia be egon zan.

Argazkiko honeik hiru-lau kinttatako mutil gaztiak dittugu. **Naparreneko** kantoian agiri dira, Joxe Plazaolaren karnazerixiaren ate aurrian, dotore trajiauta, *fariasa* eskuetan, domeka edo jai-egun bateko kafe-orduan. Erdixan daguen neska gaztia **Alizia Moreno Suberviola** da, urte batzuk lehenago **Naparreneko tabernara serbittera** Calahorra-tik etorri zana. Zulateneko Joxe Igartuarekin ezkondu zan geruago eta Larraña auzuan bizi da gaur egun. Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeitzek di-ttuzue gaztiok:



Goiko illaran zutik: **Koldo Zulueta**, Kale Zaharreko Enterradorianekua; **Juan Mari Murua**, San Juan kaleko Enterradorianekua; **Prudenzio Garzia** gasteiztarra, plazako Garaikotxeaneko pastelerua; **Joxe Mari Telleria Bakero**, Kasablankakua; **Alizia Moreno**, Naparreneko kamareria, eskuetan erregalo bat dakola; **Juanito Beitia Castillo**, Kale Zaharrekoa; **Jabier Olalde Sillero**; eta **Joxe Luis Plazaola**, Mendiko kalekoa.

Beheko illaran makurtuta: **Bernardo Santa Kruz Herrero**, Kale Zaharreko Errementarixanekua; **Jabier Mujika Katxo**, Kale Zaharrekoa; **Joxe Mari Jauregialzo Paiko**, Kale Zaharrekoa. **Iñaki Galfarsoro Herrero**, Kale Zaharrekoa eta Aretxabaletan errementari ebilena; **Bixente Ugarte Pastelero**, San Antue kalekoa; **Jexus Zelaia Pintxe**, Atzeko kalekoa; eta **Juanito Orue-ta Arrautxa**, Mendiko kalekoa.

Urte hareittan argazki honetan agerketan ez tiran beste kide batzuk be eduki zittuan **Betik ondo** kuadrilliak: esaterako, **Joxe Mari Aranburu**, San Antue kaleko pinttorria; **Andoni Galfarsoro**, Iñakiren anaia; **Juanito Gallastegi Lobera**, San Antue kalekoa; **Joxe Plazaola** (?), Urruxulakua; **Joxe Mari Romano Nabarro**, San Antue kalekoa; **Luis Urmeneta Xolongo**, Altzibar aldi bizi zana; eta **Antonio Zabarte**, Kale Zaharrekoa.

J. E.

Fotografia Joxe Luis Plazaolak 1957xan ataratakua da, automatikua ifinita seguru asko. Guri Joxe Mari Jauregialzo Paikok eskuratu dosku. Informaziñua, berriz, Joxe Marik ez ezik, Roberto Plazaolak, Alizia Morenok, Xabier Ugartek eta Nieves Aiastuik be emun doskue. Milla esker gutzioi!

**Oharra:** Fan dan hilleko fotografixa zaharrekin lotuta, Karmelo Arabiourrutiak adierazi dosku Etxaluzeko etxia, ortu eta guzti, agustiñuak erosi otsailla Maria Irizarreri 1960 aldera eta handik urte gutxira saldu ospitaleko juntiari, latorandarrak San Lorentzoko seminarixua egitten hasi ziranian. Eskerrik asko argibidiarengatik.